

Hizkuntz politikarako erakundearen eraikuntza (GIP)**ZERGATIEN AURKEZPENA****Aitzin solasa**

1990ko hamarkadan, Euskal Herriko eragile anitz, erakundeak, hautetsiak eta gizarte zibileko ordezkariak, elkarretaratu ziren, urraspide berean lurraldearen geroa asmatzeko, eta ados jarri ziren hizkuntza eta kultura ondareak definitzeko tokiko garapenaren indar nagusi bezala.

Gogoeta honen jarraipenean, Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema idazki estrategiko eta eraginkor bat da, eta "Hizkuntz antolaketa" derizon kapitulu batean norabide eta ekintza batzu gorpuztuak dira euskara aitzinarazteko eta bizkortzeko. Ekintza publikoaren beste alorrak bezala, lehen aldikotz euskalgintza lurralde egitasmoaren barnean ofizialki sartu zen.

Estatuak eta tokiko agintek Euskal Herriko hitzarmen berezia izenpetu zuten, kontratuzko urraspide bat aukeratuz antolaketa eskemako ekintzak obratzeko. Abiatua zen ihardupidearen jarraipenean, "Hizkuntz politika" izenburuarekin onartu zuten lehen egitasmo hitzartua, euskalgintzan diharduten eragile publikoak eta pribatuak laguntzeko eta sostengatzeko.

Euskalgintzaren alorrean ekintza publikoa egituratzeko bide horretan, urras berri bat egin zen Hizkuntza politikarako obragintza publikoa sortu zelarik, 2001. urtearen hastapenean elkarretaratu zirelarik Estatua, Akitania eskualdea, Departamentua, Hautetsien kontseilua eta Euskal kultura sostengatzen duen herrienarteko sindikata. Erakunde horiek elkarretaratzea erabaki zuten, eta hizkuntza politikarako lehen egitura kudeatzea.

Epe horretan zehar, hizkuntzagintzan ari diren egitura askok, maizenik elkarrekin, aldaketa horiek biziki lagundu eta akulatu zituzten. Alor anitzetan beren ekintzak eraman dituzte : eskola inguruko ehintzak, jende helduen euskal ikaskuntza, hizkuntzari buruzko ikerlanak, hedabideak, liburugintza, gizarteko euskararen erabilera, ikas-tresnen ekoizpena...

Aspaldiko hitzarmenei esker, egitura anitz bada oraindik, botere publikoek hobeki laguntzeko xedea baitute.

Hamarkada berean, ama-eskoletan eta lehen mailan, nola eskola publikoetan hala ikaskuntza katolikoan eta ikastoletan, euskarazko ikaskuntsaz baliatu diren ikasleak bikoiztu dira eta gaur egun ikaslego osoaren bostetik bat osatzen dute.

Halere, ahalegin horiek eta handituz doan mugimenduak ez dute oraindik funtsez geldiarazi eskararen gainbehera : hiztunen kopurua laster ttipitzen ari da, familia barneko hizkuntza jarraipena ez dabil eta erabilera atzera doa Euskal Herriko eskualde guzietan.

Zorionez, euskararen atzerakada itxuraz ez da ezinbestekoa. Alabainan ezaugarri batzu badira itxaropena emaiten digutenak, datorren hamabost urteetan eramanen diren ahaleginek euskararen ahulezia sendatuko dutela.

Oraindik hemen ditugu adierazle batzu :

- azken soziolinguistika inkestan ezaugarri zenbaitek onera egin dute ;
- euskagintzan diharduten eragileek beren trebetasuna eta kartsutasuna erakusten dute ;
- hiztunen kopurua ez da gutiestekoa ;
- gero eta familia gehiagok beren haurrentzat eskolako euskararen ikaskuntza hautatzen dute edo hauta lezakete ;
- hautetsien eta herritarren andana handi batek, euskara biziberritzeko xedea adierazten dute ;
- berrikitan hizkuntza politika eraikitzen ari da.

Ahalegin hau, euskalgintzaz eta euskal kulturaz arduratzen direnen ekimenetan oinarrituko da. Euska Herriko gizarte zibilaren partaide askori adierazi behar zeie interes handia luketela obra honetan parte hartzen badute. Botere publikoen gain da norabideak hartzea eta jarraipena segurtatzea. Helburu honetan dago Interes publikodun bilgunearen (GIP erakundearen) sorkuntza.

Erronkari honi aurre egiteko bildu dira, sindikata batean dauden Euskal Herriko udalerrriak, Hautetsien Kontseiluak ordezkatzeko dituen Euskal Herriko hautetsiak, Akitania eskualdeko Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia eta Estatua, ministeritzarteko urraspide bat eramaten duelarik Barne Ministeritzarekin, Kulturarenarekin eta Hezkuntza Nazionalarekin. Elkarrekin erabaki dute zuzenbide publikozko egitura bat antolatzea eta definitzea, eta euskararen aldeko hizkuntza politika bat obratzea.

GIP erakundeak segurtatuko du hizkuntza politikaren obragintza, eta, alor bakoitzean, oinarritzat hartuko araberrako egitura publikoak eta pribatuak, gai baitira erabaki ziren ekintzak obratzeko.

1) GIP erakundearen ekintzak

1. Hitzarmen bereziko hizkuntza politikaren kapituluan dauden ekintzen jarraipena

Ekintza batzu, Obragintza Publikoak jadanik diruz laguntzen ditu (jende helduen formakuntza, elkarte hedabideak, eskola inguruko ekintzak, ikerketa lanak). Administrazio Kontseiluaren erabakiz, ekintza hauk zabal daitezke beste alor batzutura, orain arte landu ez direnak hala nola euskarazko liburugintza.

Egitarau honetan, GIP erakundeak diruz lagunduak diren ekintzen jarraipena segurtatuko du :

- hitzarmenak obralariekin antolatuz ;
- hitzarmenen bitartez erdietsi diren diru laguntzak kudeatuz ;
- aipatu obralariekin partaidetzan egonez, administrazio kontseiluetan, biltzar nagusietan eta bilkura teknikoetan parte hartuz ...

2. Hezkuntza Ministeritzaren partaidetzarekin egitekoak

Lankidetzeta egitura bat eraikiko da GIP erakundearekin, Hezkuntza Ministeritzaren esku diren gaitan, hala nola euskararen eta euskarazko irakaskuntza aitzinarazteko urte askotako jokabidea hiru sareetan, bai eta ere gero irakasleen hautaketa eta formakuntza.

Beste ekintza batzu antolatuko dira, akademiako eta errektoretzako eginteeekin, Hitzarmen Bereziko ekintzen antzekoak, eskolako euskal irakaskuntzari buruzko gogoetaldiak, ikas-tresnen ekoizpena, gizarte eskaera neurtzeko tresnen lanketa, edo ikasgela berriak irekitzeko plangintza...

3. Euskararen erabilera sustatzeko ekintza berriak

Ekintza hauek ez dute baitezpada finantza baliabide beharrik, baina bai ekimen eta animazio ahalmena, GIP erakundeko talde profesionalarengatik, administrazio kontseiluak finkatuko dituen norabideen ildotik.

Egitarau horren barnean, GIP erakundeak abian ezarriko ditu gogoetaldi urraspideak eta animazioak eragile publikoeri eta pribatueri buruz, euskararen erabilera aitzinarazteko :

- iharduera alor berezi bati buruzko ekintzak, bertan lanean ari diren profesionalekin batera ;
- eremu publikoko edo pribatuko langileen formakuntza egitarauaz arduratzen diren egiturari buruzko laguntza ;
- ekimen eta gogoetaldi kanpainak ;
- hedabide publikoeri eta pribatuei buruzko sustapenak ;
- aitzin ikerketak lan-tresnak eta zerbitzuak sortzeko : itzulpenak, formakuntzak ...

4. GIP erakundearen jarduera iraunkorrak

- a) Behatoki eta jarraipen funtzioak :
- adierazle kantitatiboak euskalgintzari buruzko ekintzak neurtzeko : hezkuntza sareetako euskal ikasleen kopuruak, hizkuntza eragileen aurrekontuak, euskalgintzan diharduten langileen kopurua, euskarazko erabileraren iraunpena entzun-ikusizko hedabideetan ...
 - hizkuntzen erabilera (soziolinguistika inkestak), hizkuntzak ikasteko nahikundea (iritzi ikerketak).
- b) Harremanak herri hizkuntzetaz arduratzen diren Frantzia beheko edo Europako eragile publikoekin edo pribatuekin ;
- c) Harremanak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoko hizkuntza eragileekin ; 2003an izenpetu den Obragintza Publikoaren eta EAEn arteko lankidetzaren hitzarmenaren jarraipenean, kontratu urraspideak abian ezar daitezke GIP erakundearen eta Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikaren sailburuordetzaren artean.
- d) Neurketa funtzioak, euskararen aitzinarazteko egiten diren egitarauak neurtzeko, molde kantitatiboan eta kalitatiboan.

2) **GIP erakundearen aurrekontuak**

- a) Urteroko diru laguntzak :

Estatuak (Hezkuntza, Kultura, Lurralde politika)	% 30
Akitaniako eskualdeak	% 30
Pirinio Atlantikoetako departamenduak	% 30
Herrienarteko Euskal Sindikatak	% 9
Hautetsien Kontseiluak	% 1

- b) Gastuen bi kategoria nagusiak
- Hitzarmenek hizkuntza eragilei eskaintzen dituzten diru laguntzak (ikus 1. atalean aipatu ekintzak).
 - GIP erakundeak eramanen dituen ekintzei lotuak diren funtzionamendu gastuak (ikus 2., 3., 4. ataletan aipatu ekintzak).
Lan-talde iraunkorraren funtzionamendu gastuak.
Beste gastuak : harremanak, lankidetzak...

3) GIP erakundearen lan-talde iraunkorra

GIP erakundeko lan-taldea osatuko duten langileak, edo partaide diren egituretako langileetarik etorriko dira, edo zuzenean hautatuak izanen dira.

Lan-taldearen konposaketa, onartuko den aurrekontuaren arabera izanen da : hastapenean 4 edo 5 pertsona, horietarik bat arduradun karguarekin.

Lan-taldean aurkituko diren gaitasunak hauek dira :

- a) Administrazioa eta finantzamenduari buruzko ezagutzak, lurraldeko funtzio publikoaren arabera.
- b) Eskola sistemaren eta ikaskuntza antolaketaren ezagutza zehatzak.
- c) Euskal Herriko hizkuntzagintzako eragileen ezagutza.
- d) Gogoetaldi kolektiboen sustatzeko eta antolatzeko gaitasuna.
- e) 1901eko legearen arabera elkarten funtzionamenduari buruzko ezagutzak.
- f) Euskara idatziz eta mintzatuz erabiltzeko gaitasun ona.
- g) Baliabideak biltzeko, emaitzak aztertzeko eta harremanetarako gaitasun berezia.

4) GIP erakundearen aholku batzordea : "hizkuntza kontseilua"

GIP erakundearen xedea da aholku egitura bat eraikitzea eta animatzea, euskalgintzan diharduten eragileekin eta adituekin. Laguntza bat bilatzen du bere eginbideak ongi betetzeko, euskalgintzaren alorretan lan egiten duten jende guzien esperientziaz baliatuz. Holaxet Hizkuntza Politikaren antolaketa sartuko da elkarteetako eragileak bilduko dituen lankidetzaren urraspide batean.

Aholkularitzako partaideak

- a) Euskaltzaindia.
- b) Hizkuntzagintzaren eragile publikoak : Unibertsitatea, Iker zentroa, Eskualdeko pedagogia zentroa (CRDP), Irakasleen formakuntza institutua (IUFM), eta Jende helduen formakuntza unibertsitarioa (EPLE, GRETA).
- c) Euskalgintza alorretan ari diren elkarteetako arduradunak : Uda leku, Bertsolarien lagunak, AEK, Angeluko ikasleak, Euskal irriatiak, Euskal konfederazioa, Ikas...
- d) Euskararen eta euskarazko irakaskuntzako eragileak eta partaideak : Irakaskuntza katolikoaren zuzendaritza (DDEC), Seaska, Gurasoen elkarteak , irakaskuntza publikoan : Ikas bi, Biga bai, FCPE, PEEP ; irakaskuntza katolikoan : Euskal haziak, APPEL. Irakasleen sindikatak, sare publikoan eta sare pribatuan.
- e) Adituak : unibertsitateko irakasleak, ikerleak, hizkuntzalariak. Aditu hauk hautatuko dira beren jakitatearengatik eta GIP erakundeak eramanen dituen ekintzen arabera.

Funtzioak

- a) abisuak eman GIP erakundeak eramaten eta eramanen dituen ekintzetaz ;
- b) proposamenak eta gomendioak egin hizkuntza politikari buruz ;
- c) tresna estrategikoen ekoizpenean parte har, adibidez Euskara 2015 planan.

Antolaketa

- a) Biltzar orokorrak eta lan bilkurak GIP erakundearen eta aholku batzordearen artean hitzartu egutegiaren eta egitasmoaren arabera.
- b) GIP erakundeburua edo bere ordezkaria mahaiburu izanen da eztabaidetan, eta lan-taldeak idazkaritza segurtatuko du.
- c) Aholku batzordearen ekoizpenak segidan helaraziko dira GIP erakundearen administrazio kontseiluari, ikusteko zer jarraipena emanen zeien.